



ORDUTEGI-OHITUREN GAINEN JARRERA ETA IRITZIETARA HURBILKETA (2016ko ekaina) Prensa oharra

SARRERA

Ikerketa honen helburua izan da ordutegi-ohituren inguruan biztanleek dituzten jarrera eta iritzietara lehen hurbilketa bat egitea. Ordutegiaren inguruan hainbat lan argitaratu izan dira, ordutegiak lan-jardunean, eguneroko bizitzan eta enpresetako produktibitatean izan dezaketen eraginaren inguruan, baina gaiaren inguruan biztanleek dituzten jarrera eta iritziei buruzko erreferentziak apenas aurkitu ditugu.

Ordutegiak arreta gai bihurtu dira azkenaldian, bai gaian adituak direnen aldetik, baita arduradun politiko zein komunikabideen aldetik ere. Zenbait azterketek erakusten dute egungoak baino ordutegi arrazionalagoak gizarte osoarentzat mesedegarriak izango lirakeela, bai norbanakoen mailan, bizitza familiarra, pertsonala eta profesionala kontziliatzeko erraztasunak emango lizkiekeelako, eta baita enpresentzat ere, langileen poztasun maila handituko litzakeelako eta horrekin batera lan-etekinak.

Azkenaldian hainbat eztabaida piztu dira gai honen inguruan: gaur egungo ordutegiak egokiak dira bizitza familiarra, pertsonala eta profesionala bateragarri egiteko? Handitu al daiteke enpresen mozkina ordutegiak beste modu batera antolatuta? Zein eragin du gure eguneroko bizitzan Europako hainbat herrialdeetakoak baino ordutegi berantiaragoak izateak? Eztabaida hauekin nahastu den beste bat ordutegi-eremuarena izan da, eguzki orduak eraginkortasunez aprobetxatzeko ez ote dugun ordutegi-eremua aldatu behar, Greenwicheko meridianorekin bat eginez.

ORDUTEGIEKIN ZERIKUSIA DUTEN EGUNEROKO OHITURAK

Hamarretik lau hamaikak eta hamabiak bitartean oheratzen dira. %43k uste dute behar baino gutxiago lo egiten dutela, eta %40 maiz oso nekatuta iristen dira egunaren bukaerara.

Hamarretik lau hamaikak eta hamabiak bitarte oheratzen dira (%43), %28 hamaikak aurretik eta %26 hamabiak ondoren.

Euskadiko biztanleak Espainiakoak baino lehenago oheratzen gara: azken hauen artean %34 hamaikak eta hamabiak bitarte oheratzen dira, eta %40 hamabiak ondoren. Goizean lehenago jaikitzen gara ere, %65 zortziak aurretik, aldiz, espainiarren artean %57 jaikitzen da zortziak aurretik.

Gehienek behar beste ordu lo egiten dituztela uste badute ere, %43k sentsazioa dute behar baino ordu gutxiago lo egiten dutela. Sentsazio hori bera dute espainiarren %32k.

Afaltzeko orduari dagokionez, %46k gaueko bederatziak eta hamarrak bitarte afaltzen dute. Gai honetan lurraldeen artean ezberdintasuna nabarmena da, Gipuzkoan goizago afaltzen da Araban eta Bizkaian baino: hots, Araban %50ek eta Bizkaian %49k ordu tarte horretan afaltzen dute, aldiz, Gipuzkoan portzentaje hori %39raino jaisten da, eta %44k zortziak eta bederatziak bitarte afaltzen dute. Gipuzkoan jendea apur bat lehenago oheratzen da ere.

Egunaren bukaerara biztanleriaren %40 beti edo maiz oso nekatuta iristen da bere eguneroko jardueraz, eta %16 etxeko gauzak edo lanak egiten aritzen da ohean egon beharko lukeenean. Portzentaje hauek dezente handiagoak dira 15 urtetik beherako seme-alabak dituzten emakumeen artean, horietatik %66 oso nekatuta iristen dira egunaren bukaerara eta %39 etxeko gauzak edo lanak egiten aritzen dira ohean egon beharko luketenean. Seme-alabak dituzten gizonezkoen artean ere portzentaje hauek apur bat handiagoak dira seme-alabarik ez dituztenen artean baino, baina emakumeenak baino dezente txikiagoak.

Biztanleriaren laurdenak dio oso berandu oheratzen dela telebista ikusten geratzen delako (%24 beti edo maiz).

LANALDIA

Ordutegia garrantzitsua izanik lan bat ontzat jotzeko, gehienak pozik daude lanean duten ordutegiarekin, batez ere, lanaldi jarraitua dutenak

Lanpostu batean ordutegi ona izatea, oso garrantzitsua (%54) edo nahiko garrantzitsua (%34) da Euskadiko biztanleentzat, lanpostuan egonkortasuna izatea dezente garrantzitsuagoa den arren (%78 eta %19, hurrenez hurren). Garrantzi bertsua ematen zaio lan interesgarria izateri (%57 eta %32, hurrenez hurren).

Gaur egun lanpostu bat dutenei, eta egun langabezian egonda aurretik lan egin dutenei, euren lan ordutegiari buruz eta lanaldiarekin duten poztasun mailari buruz galdetu diegu.

Hamarretik seik ez dute (edo zuten) askatasunik euren lanaldia antolatzeko (%62), lanera sartzeko eta irteteko ordutegia enpresak zehazten die, euren aldetik inolako aldaketa aukerarik gabe. Muga batzuen barnean, lanera noiz



sartu eta noiz atera erabakitzeak askatasuna dute (edo zuten), aldiz, %29k, eta %10 aske dira euren lanerako sarrera eta irteera orduak erabakitzeak.

Dena den, gehienak pozik daude duten lanaldiarekin (%67), batez ere, lanaldi jarraituan lan egiten dutenak (%84 daude pozik hauen artean). Poztasun mailarik txikiena dutenak lanaldi mistoa dutenak dira (egun batzuetan jarraitua eta beste batzuetan etena).

Lanpostua duten (edo langabezian egonda, aurretik lan egin duten) pertsonen herenek lanaldia aldatu nahiko lukete (%32), gehien-gehienek lanaldi jarraituan lan egiteko (%80). Erdia baino gehiagok uste dute aldaketa hori oso zaila edo nahiko zaila izango litzatekeela enpresarentzat (%53) egiten duten lana aintzat hartuta. Bestalde, %52k uste dute lana lanaldi horretara egokitzeak enpresari ez liokeela inolako kalte ekonomikorik eragingo, %28k enpresak okerrera egingo lukeela uste dute, eta %12k enpresak ekonomikoki hobera egingo lukeela.

%47k ez dute lanera sartzeko eta ateratzeko ordutegia aldatu nahi, eta %44k nahiagoko lukete lehenago sartu eta lehenago atera.

Lan ordaindua egiten duten (edo egin duten) pertsonen erdiek lan jarduna arratsaldeko seiak aurretik amaitzen dute (%54), %18k seiak eta zortziak bitarte, eta %15ek zortziak eta gaueko hamabiak bitarte. Lan-ordutegia aurreratu edo atzeratu nahiko luketen galdetuta, bi aukeren artean banatuta agertzen dira iritziak: batzuek nahiago dute egungo ordutegia mantendu (%47), eta besteek nahiagoko lukete lanera goizago sartu eta lehenago ateratzea (%44). Soilik %5ek esan dute nahiagoko luketela beranduago sartu eta beranduago ateratzea.

Gainera, hamarretik lauk lanaldia luzatzen dute (edo zuten), ohiko ordutegian dagokiena baino ordu gehiago sartuz, gutxienez astean behin (%19k egunero edo ia egunero, eta beste %22k gutxienez astean behin). %27k ez dute inoiz ordutegia luzatzen.

Egungo norberaren ordutegiaren eta lanaldiaren balorazioa nahikoa positiboa da, ez hainbeste ordutegi-malgutasunari buruzkoa.

Enplegatutako pertsonen (edo langabezian egonda aurretik enpleguren bat izan dutenak) nahiko modu positiboan baloratzen dituzte euren lan-ordutegiak: Oitk 10erako eskalan, 7,0 batekin baloratzen dituzte lanaldia eta ordutegia, eta 7,1ekin euren gauzetarako eta familia zaintzeko dituzten baimenak. Aldiz, balorazioa dezente txikiagoa da ordutegien malgutasunari dagokionez (5,9).

ORDUTEGIEN EGOKITZEA

Iritziak banatuak agertzen dira ordutegia Europako bestelako ereduera egokitzearen inguruan, batzuk ados agertzen dira ordutegiak aurreratzearekin eta besteak nahiago dute egungo ordutegia mantendu

Biztanleen erdiak baino gehiagok nahiago dute ordutegiak orain arte bezala mantentzea (%54), Europako beste herrialdeetako ohituretara egokitzea baino, non lehenago bazkaltzen duten, lehenago irteten diren lanetik, lehenago afaldu eta jendea lehenago oheratzen den. %41 ados egongo liriteke ordutegiak aurreratzearekin, Europako herrialde horietara egokituz.

Iritziak banatuta agertzen dira ere Euskadiko ordu-eremua aldatzearen beharraz galdetuta, Greenwich meridianoarekin bat egiteko, alegia, erlojuak ordubete aurreratzearekin eguzki orduak hobeto aprobetxatzeko: %43 ados daude ordu-eremua aldatzearekin, eta %44k nahiago dute egun dugun ordu-eremua mantentzea.

Iritziak ez daude hain banatuak telebistaren ordutegiari dagokionez: biztanleen %64 ados egongo liriteke audientzia handiena duten programak ordubete aurreratzearekin, eta soilik %17k nahiago dute egungo ordutegia mantentzea.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.000 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 3,16$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2016ko maiatzaren 11tik 13ra egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 1ean